

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

1110

AGINDUA, 2025eko otsailaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez adierazten baita bete gabe geratu dela Hezkuntza sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 2022/11 Legearen 102.2.c artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Hezkuntza Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia egiteko Hezkuntzako sailburuaren 2024ko azaroaren 19ko Aginduaren laugarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorritik (2024ko azaroaren 27ko EHAA, 231 zk.), honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkari-lanpostu bat (520010 kodea eta 68 dotazioa) betetzeko deialdia.

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, auke-rako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.